

Kezka zer dan

Ona itz eder bat; gaur-gaurkoa gaiñera. Ezin-egonez, urduri, kezkatan gabiltza gaur danok; bai, larri ta artega goaz bizi-bidean zear. Bere zera du kondairaren al-dikada bakoitzak, eta gu bizi geran onek auxe damakigu: kezkaz bizi- tzea; oiña, seguru beintzat, nun jarten degun ez dakigula ibiltea.

Mundu berri bat osatu nai degu. Edo obeki: bizi geran mundu oni, gizarte oni itxura berria eman nai diogu. Berriratze nai au, egia esan, ezta gaurkoa; aurreko gizaldietan ere askotan izan dira olako kezkaldiak eta mundua era berriz jantzi naiak. Azter kondaira ta olaxe aurkituko ditugu edesti sail audiak, berrizte griña ta opa bizitan ari izanak.

Ortan gabiltza orain ere. Ta lenago baiño buruko min eta istillu latzagoak dauzkagu gaur ezker-esku. Diru-auzi askatu eziñak ekarri dizkigu munduak, eun urte oetan egin duen aurrarakada ikaragarrian batez ere. Politika dala, ekonomi dala, txau-gizartea (konsu-

mozko gizartea) dala; len nekazaritzatik geien bat bizi ziran mundu-zati aundiak, beren soro ta landak utzi ta uri aundietan gorde dira: langilleria sortu da, ta ikaragarriro sortu ere. Lengoz gaiñera, beraz, gain-begiratu batez bakarrik askatu ezin ditzakegun korapillo ta buru-auste bereziak jarri zaizkigu begi aurrean.

Ezta, ba, arritzekoa gaurko gizonaren kezka, larri ta estura. Era askotakoak noski. Onako batzuk askatu nai genituzke. Ta gaurkoz eliztar geranez dauzkagun batzuk aipatuko ditugu.

Elizaren diktadura? 1936?

Jainko-sailak errotzen du Eliza. Ta errotatzeko zira kezkatan bizi geria, Elizai. Ez diranak baiño zer-bait gerago, bear bada. Eliza Kristo da, ta elitarrok Kristoren jarraille jator izan bearra degu. Bai ote? Bear genuke beintzat. Eliza munduko gatz eta argi degu, elitarrok beraz gizarteko gatz eta argi izan bear. Nola bestela Kristoren egiazko jarraille izan?

Ortan lan egin bear degu: gizar-
tea gatzez gatzituten, ustel gertatu
ez dedin; Kristok bezela argia za-
baltzen, illun artean bide egin ez
dezagun. Kristok ederki esan zue-
nez, illunpeko semeak sarri argi-
semeak baiño azkarrago ari dira
orretan. Gaur batez ere. Baita gure
lurralde maitagarri ontan ere. Zer
orduan? Besoak tolestuta egon?

Eliztar guztiok gaur, iñoi zkorik kementsuen, lanari oratu bearra degu. Ez gero gotzain, apaiz eta prailleak bakarrik; auek ez dira naikoa, ta denon indarra, alegiña bear degu: denon arnasa bero txalogarria. Erriak esku artu bear du, kristau erriak batez ere, gizartea barritzatzeko arazo ontan, demokrazi maillan artu ere. Baiña ez digu onek bakarrik dana egiña emango. Bataioak ez gaitu elizako bakarrik egiten: bere aldez, Elizaren aldez zerbaitegiteko beartzan gaitu. Barruan josita eraman bear degu au: ez gera bakoitza Eliz-atal bakarrik, baita bere erantzun-bear-dun ere. Ez, ez degu Eliza apaizok bakarrik osatzen, bataiatutako guztiok baizik. Argi al dago?

Onela-edo eio bear-ditugu geure errazoiak Eliz barruan lan egiteko. Ni ere bataiatua naiz, eliztar naiz, Kristoren jarraille naiz, beste edo-

zein bezela aurki, ta jakiña, ontan denok gera berdiñak. Zer eskatzen dit onek? Alkarrekin lan egin bear detala, neri dakogidan taldean, demokrazi-maillan; alkarteak, gizarteak lana eskatzen dit, zerbitzua; Elizak lana eskatzen dit, eguneroko zerbitzua. Zeozergatik daramat kristau izena. Izana bai ote? Sarri au esan oi degu: «Apaizak dira Eliza, aieri dagokie Elizaren ardura. Ni ta nire ingurukoak ere, asko beiñik-bein, oien aurrez aurrebizi gera. Kontra egiteko ere bai, labur: antiklerikalak gera». Au alda kristau baten jokabide arteza?

Esnarazi bearra

Guztioin taldeko lan egite ointan
lo xamar gaude oraindik. Etxe bat-
tean ez al gera asko? Aita, ama ta
seme-alabak... Bataiatuak ez nte
gera guztiok, euskal errian ale a?
Batasun bat, alkarte bat ez al degu
osatzen? Gizon, emakume, gazte ta
zar ez ote goaz elburu berdinera?
Jainko-erri bezela, apaiz-erri beze-
la, esan oi degu. Ta, izan ere, apaiz-
deia degu guztiok, apaiz lana egin
bearra Eliz barruan.

Baiña, berriz diñot: alkarte barruan denok langille izateko kontzientzi au epel xamar daukagu

craindiño. Esnatu bear da alere, ta
ez, esan bezela, demokrazi-maillan
janari ekiñaz bakarrik: erlijio ezi-
keta berezia bear degu guztiok. Ez
gera gorputz bakarrik: gure zati-
rik beiñena ezpiritua da, gorpu-
tzari indarra, arnasa ematen dio-
na; lanbide ontarako, beraz, zati-
biak ezi ta azi bear ditugu.

Ta erlijioak zer eskatzen dit ni-ri? Apostolu Iana, fedearen indarrik eraginda. Nere inguruan badira gizonak eta emakumak nere urko-lagunari laguntzen, gaiztake-ria zapaldu ta on-azia ereiten ari diranak, mundua obeagotzen lan dagitenak. Egia esateko, onelakoak sarri ezetsiak eta baztertuak izan ohi dira, zintzoegi jokatzen dutela-o bear bada. Bizia burruka da, a ortan ari dira usterik onenare-in; baiña iraultzaille bezela sarriurrean erabilli oi dituzte,

Baita ba-dira nire ezker-eskui beste batzuk ere kezka ta buruko min gabeko bizitzan lasai bizi diranak. Nik noren tarteko jokatuko ote? Ez det nai alper-tartekoa izan; nere lan-izerdiz mundu obeago bat eratuten saiatu bearra det. Egingo al det?

Auxe da kontzientzia atzarri ta

Kris-
esnatzea. Auxe det, gaiñera, Kris-
toren antzeko apaiz-lanean alegin-
tza.

Eimakumeak ere apaiz?

Gizartean bi motako gera, gizon eta emakume. Emakumeak ere apaiz lanean sartu bear al dute? Bionak dira Eliz barruko lanik asko: eliz-arazoak eraman, dotriña erakutsi, zabalkundea osotu, aurrik erlijio arauz azi ta ezi, kultura eman. Bai, andrazkoak importantzi aundia dute Elizan. Nolako laguntza eman oi dien eliz-gizonai! Elizak txukun eta dotore edukitzet ez-ezen, beste anitz arlotan ere bai. Aintzagarri ditugu alderdi ortatik, naiz mixio-lurretan naiz gure artean. Etxe barruan ere gizasemeak baiño jainko-zale ta arduratsuago agertu oi zaizkigu geienik.

Eleizkoitasun eta ardura origatik, Elizeak beti eman dio emakumeari gora aundia. Azken urteotan baitik bat. Emakumea gaur, berez ditun eskubideen jabe gizartean egin ez-ezik, eliz barruan ere, kristau bezela, gorenengo mailletarai-ño igoteko zorian dakagu. India'n eta Israel'en bezela, estadu askotan zuzendari ditugu, ta Eliz barruan ere zerbait izan nairik dauz-

kagu, ta nik ez diñot merezi ez dutenik. Askotxo zor die Eliz biziak.

Gaur au ere galdetu oi degu: Egoki al da emakumak elizetan Itza aldarrikatzea (predikatzea), Sakramentuak eman eta olako arazoetan eskua artzea? Au da: Elizan zerbitzari edo diakonisa izatea? Naikoa idatzi da auzi oneren buruzko, naiz-ta emakumeak Elizan duen importantsiarekin ainbesteko zer-ikusirik onek izan ezta ere. Zerbitzu ederra egin dezakete ta egiten dute, titulu ori barik ere. Be-Amerikan eta mixio-lurretan ba-dira olakoak; ba-dira emakumak parroki baten ardura dutenak, gure Jauna eman eta predikatzen duenak. Europa'n alere, oraindik ez lago ainbesteko premiñarik, eta ero ere apaizak eta diakonuak auden bitartean, ez dirudi emakumeak bearrezko diranik zerbi-oietan ari izateko.

Apaiz zarrakin zer?

Beste edozein gizaseme zartuk bezela, auek ere, bete dute beren egitekoak, ta, bizitza-azkeneruntz ar dezatela, gorputzezko bizialdi oñtan ere, beren atseden merezia. Auxē da gaur zabal dabilkiguna.

rezi ez Len alere etzegon olakorik, ez ur
Eliz bi- aundietan, ez baserrietañ. Gaur
degu: ordea, edozeiñek artu oi du bere
izetan jubilazioa. Ez dago gaizki. Bizitzako
neke-lorren saria izan dezatela
lur gaiñ onetan ere.

Aspaldi danik iragarri digute egunerokoak beintzat, gaur Erro maín Aita Santu daukagun Paul VI'garrenak ere bere jubilazioa ar tuko duela, au da, utzi egingo du, la bere Aita Santutza: len etzan egundo ere, onako kasu aparteko oatzuetan izan ezik, olakorik en zuten. Gure errietako arima-zai aunak, berdin, il arte iraun oi zuen beren karquetan.

Nola aukeratu Aita Santu berriko

Gaur-egunean, gizarte naztu onean, buru aiña aburu daudragu ta zail zaigu gauzai neurria — ohi, be sakon ta noiza — bear bezala ematea. Bakoitzak degu ikuspegi bat, eta andixik izan ezik, ez ditugu geure ingurukoak begiztatu eta iku si nai. Ta, ortara ezkero, zuzen asko esan ohi ditugu. Au ere bain elizgizonak parrokirako, gotzaiaik elizbarrutirako ta Aita Santua Elizosorako, eliztarren autarki edo botoz aukeratu bear lirakela. Gaur demokrazi-zale porrokatu gera, an-

*tziña baten monarki-zale edo ziran
bezela. Ta au da, dudarik gabe,
biderik egokiena ere; gizonaren
hortasunak eta askatasunak eska-
tzen duena baita.*

Baiña oraindik, ontara orduko, urte mordoa igaroko da noski bai-ño noskiago. Aita Santuaren auke-ratzean, alere, laiko, erritar edo eliztar batzuk esku artzea nai dutenak, askotxo dira. Auzi guztiz sá-murra da izan, oraiñarte kardine-lak bakarrik egin dutena. Baiña aurrerantzean errez izango litzake gotzaiai ta laikoai ere ortarako es-kubide pixkat ematea.

Onek, dana esatera ezkerro, zozter asko urratuko lituke. Lendabizi, nola autu laiko oiek? Nolako iritziz jokatu? Askorik ezin aukeratu, iñolaz ere; bestela nola bukatu ortarako aukeratzea? Gutxi aukeratu ezkerro, ordea, ogei esaterako, or lirake beste asko gaizki esaka ta protestaka. Zergaitik ez gure aberrikoa? Zergaitik ez urlia, sandia edo berendia? Ez al du ark geiago balio? Nork iltzean jo?

Ona beste koska bat ere. Aude: laikoak ez dituzte ezagutzen autesgai lirakenen gaitasun eta izakera bakanak; eta zaillago litzake beren iritzia ematea. Baiña,

beti ere, ditekena da, baita laiko
bat Aita Santu aukeratzea ere. Al-
derdi ortatik ez dago koskarik.
Bai, ordea, nolari begira ezkero,
berez-berez jaikitzen zaizkigu isti-
lluak, eta ez gutxi.

Asmo gaiztoz?

Gure artean ba-dira gaur —ala dirudi— asmo gaiztoz euskal erriari bere zerik ederrenak moztu nai, dabilzanak. Tabu ta mitoak euki omen dute gure erria, dragoi itzal batek bezela, beren atzapar artean; eta tabu ta mito oiek uxatu bearra omen degu. Baiña zuntzitzaille ta berri-zale auek euskal erriari eskeiñi ta sartu nai diotena, ez al da tabu, mito ta zer guzti oiek baiño gaitzagoa? Buru-garbitxeta egin bear omen zaio euskal-riari. Ta ori egin ondoren, zer erakutsi lengoaren ordez, zer eman? Jainkorik ez, erlijiorik ez, goi-gauzarik ez. Zer orduan? Ara-gia ta materia bakar-bakarrik? Ori besterik ez al gera? Nun dira gure ezpirituaren balioak? Eta zer poz emango digu, lur onetan bizi izateko, abere bizitza oiek? Gizonak al gera, ala abereak? Aurrera goaz, ala atzerantz? Ez, ez kendu euskaldunari bere zintzotasunean, beti —baita orain 20 mila urte leize

zuloetan bizi zalarik ere— izan duen goi-egarria, berezko egarria, guk atzeratuta daudela esan oī degun afrikarrak berak ere bizirot sentitzen duen egarria.

Gure errian, bai, ba-dira azken urteotan fenomenu bitxiak, errauak, eliz arazoai buruz ere. Ez degu iñoren mendeian egoterik. Zoztor guztia astindu ta «Gora askatasuna!» esanik, nai degun guztiai lotzen gatzazkio... Oillar ausart antzera, kukurruku jo ta bizi, bizi alajaiñal Nor gu Iakorik? Beude besteak mutu; gu bai gera emen aurrelari. Ta, jakiña, iraultzaile meko auek dute oraingo egoera larri askoren errua. Gizarrea zuenez ta maitasunez jaso ta ederretsi bearrean, pozoi-osiñean ito nairik lan dagitenak ditugunoski. Abere bat da gizona, ta bes-te lau zangokoak baiño gaiztoago sarri. Ta nai duena egiten laga ezkerro, ta ortarako aizea eman ezkerro batez ere... nork galazi orren malda-beerako abiada?

Elizatik urrundu naita?

Motibu asko dira aitaten diranak. Maitasuna ere, txera ta aremanik ezzpadu, otzitu egin oī da. Orixo bera gerta oī zaio katoliku

askori: bataioa artu zuten, baita dotriña pixkat ikasi ere, ume zirala; besterik ez. Gerora epeldu dira, Elizarekin eta erlijio-gaiekin artu-eman gutxitxo izan dutelako, ziur asko. Albora uzten danak, izan ere, ez digu ikara berezirik ematen. Eta ori errezi doa aztuzulora.

Nainun? Bai, baiña uri aundietaz errazago. Uri aundietaz arti, eman asko gabe bizi da jendea; ez Elizarekin, ez erritarrekin ez dute igortzi ta ikuturik. Anai gerala, arrotz bezela bizi. Erri kaskarretan ezta ainbeste; ar-eman gejago izan oī da, nai: Elizarekin naiz auzokoakin. Ortz, oiturak, legeak, izkuntza, erlijioa bera naikoa errezo zaitu genezake.

Kulturrik eza gaiztakeri askoren iturri degu. Ta gure katoliku askok ere nolako kultura dute, zori txarrez, erlijioari ta Elizburuz? Oso gutxi, erantzur bear Asko elizaz bataiatuak diri baita eskolan edo elizan bertan dotriña ere ikasi zuten umeñan; hala, aurmodura ikasi zitzuten erleji gaiak. Baiña aur oiek eskola utzak gero ere, beren ogibiderako giztatzentzira. Nola? Ofizio edo antzeko zerbitzat arretaz ikasirik. Eta orduan

uste dute —ta ala da izan ere— gizon elduak dirala, zerbaiterako balio dutela.

Baiña gaztetxo oiek erlijio aldetik, beren aurreragoko formazioan jarraitu bearrean, ez zuten aurrera egin, barru-bizitzaz beren umeñaroan lotu baizik. Etzan egin, ezta egiten ere, eziketa edo formazio bion arteko ikasketa erazkorik. Ogibide, profesio baterako egin oī dan eskolak berarekin izan bear luze erlijio ikaskuntza berezi bat ere, aurak, Jainkoari ta fedeari dagozkion gauzeten bear bezelako mailla ta eran azi, ikasi ta eskolatuak gelditu ditezten.

Gaiotan bear bezela eskolatuak diranak ez dute Eliza —naita beste aldetik akats aundiak izan— bertanbera lagako, ez dute aren aurka esamesik aterako. Olan egin ezik, berriz, gazte oiek naiz adiñekoak goizetik gabera eliz-gaietan ardura gabeko agertuko zaizkigu. Jainkoarekin zintzo izatea, beti ere, zailla baita. Ta, jakiña, errezena auzaigu: Jainkorik ez dagola ta kitu. Edo beintzat, ez ba'lego bezela, bizitza nasai ta erreza egin

Laguntasuna bear

Guztiok osatzen degu Eliza, Aita

Santu, gotzai, apaiz eta erritar, bat-taiatuta gauden guztiok: denok datamakigu Kristoren ikurra. Ta Kristau, Kristotar. Ortik, ba, Kristo'ren irakatsiak zabaltzen ere, munduko argi ta gatz izan bear begun kristauok ortan leiatu bearrean gaude. Ez du iñork ere atzera egiterik: azpi-jale litzake olakoa, guda-oiñetik iges doaken gudari txepel bat.

Elizak guztion laguntasuna eskatzen du. Zertarako? Bere arloa aurrera eramateko, lurra Jainkoerreñu biurtzeko, gizartea berriazoa ta gora jasoteko, guztiok anai, berdin eta azke gerala munduari erakusteko. Marx ala Kristo? Kristo askotaz lenagokoa degu. Ala erdoitu egin ote zaigu? Aren dotriña alere betikoa izan, baita aren Eliza ere. Berak esan bai zuen: «Etsaiak ez dute aren aurka ezer egingo». Gaiztetsia ta aurrean erabillia izango da noski, baiña ekaitz artean eguzkiak bezela, Elizak beti izango du Kristo lemazai.

Baiña berriro diot: guztiok lagundu bearra du. Ta guk lagundu bear diogu, bestelan ezpait gera kristau. Era askotara lagundu ere. Adibidez, gure errietako erretoreta apaiz lagutzailleak ez dira nai-


koa gaurko buru-auste ta auziak askatzeko: laguntzaille geiago bear dute. Nola nik lagundu? Eliz-gizonekin artu-emana izanez, artu-emana beti maitasuna sortzen du-ta. Erriko txaunburuak bere betebearrak ditu; bat auxe: erritarrak iusisi, ezagutu, poztu. Guztioi eder zai guna da au; baiña sarri lan geiegi dute apaizak eta ezin, naita ere, ikusketa ta ezagutze oiek burutu.

Aien ordez, zergatik ez det nik paper ori beteko? Ba-dira, ta ez gutxi, igandero olako bisita atsegina geringarriak gexoai egiten dizkien neska ta mutillak, arima onak noski. Nolako poza eraman oi dien oian urteetan bear bada etzanik dauden gexoai! Ez ote degu au benetako kristau izatea? Milla era ditugu munduan, gizartean, geure ingurukoen neke ta lorrak aienatu ta pozaren irri eztia zabaltzeko. Go-

zotasunaren, kulturaren, zuzentasunaren, anaitasunaren igurtzi gozoa arimetan ezarri...

Artzain-lana da au, baiña ez gero parroko jaunarena bakarrik, guztiona baiño. Ta gexoakin diñodana, etxekoekin ere berdin egin genezake. Erria ezagutu, gaitza da goen lekuau ona eda-azo; ez jakiniñari jakituria eman. Ez jakiña ba'liteke guregana ez etortea: goazengu arengana. Igandetan mezatara joanarekin, au betebearrezkoia iza-nik ere, ez degu naikoa; ori baiño geiago eskatzen zaigu, ta egin bear degu Elizaren alderako. Ez da, egiazki, gauza aundirik astean, edo illean, ordi erdi bat geure erriko beartsuen alde ematea. Bakarrik dagoanak bai pozik artzen gaitula!

Barrutia



POEMA TOTELAK

ERIO

Erio
erio
erio
otz
otz
otz
da
Erio.
Ortz
ortz
ortz
ortza atera
ta
miñ
miñ
miñ
bera
du
agoa.
Eriotzak ortza zaborretara
bota du.
Agoa gelditu zait minbera...

Anes Lazkauko

